



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

2009-10-02ko EZOHIKO UDALBATZA

Beizaman, bi mila eta bederatzigarren urteko urriaren bian, arratsaldeko 18:00etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ezohiko batzarra egin du Udalbatzak, alkatea – Ramon Gerrikagoitia Bengoetxea jauna– buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Luis Javier Oregi Iñurrieta jauna, Begoña Garmendia Vazquez andrea eta Igone Arruti Olazabal andrea.

Ez da etorri eta ezin etorria adierazi du: Itziar Arkonada Lizarraga andrea.

Ez da etorri eta ez du adierazi ezin etorria: Inork ere ez.

Udaleko idazkariak, Bittor Agirreurreta Murgia jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratua baita.

LEHENENGO GAIA
AURREKO BILERAKO AKTA ONARTZEA.

2009ko uztailaren hogeita bederatziko ohiko saioaren akten zirriborroa ikusita, aho batez erabaki du udalbatzak hurrengorako uztea onarpena, zenbait daturen baliozkotasuna egiaztatzeko beharra egoki ikusi ondoren.

BIGARRENGO GAIA
ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Alkateak honako dekretuen berri ematen dio udalbatzari:

- 2009-07-27ko 32/2009 Dekretua: Uraren Euskal Agentziak edateko ura banatzeko sareak hobetzeko diru-laguntza deialdian eskaera egitea.
- 2009-09-14ko 33/2009 Dekretua: B.A.M.T.ren lan kontratuari amaiera ematea erretiroko adina heldu ondoren.
- 2009-09-17ko 34/2009 Dekretua: A.M.k eskatutako obra baimena ematea lorategiko zati batetan baldosa jartzeko.
- 2009-09-29ko 35/2009 Dekretua: Udalaren ohiko funtzionamendutik eratorritako hainbat fakturaren ordainketa onartzea, guztira 3.682,30.- €.

Hori dela eta, udalbatzak aho batez adierazi du jakinaren gainean dagoela.

HIRUGARRENGO GAIA



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

2010 URTERAKO ORDENANTZA FISKALEN BEHIN BEHINEKO ONARPENA.

Erregimen Lokaleko Oinarriak erregulatzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 106 artikulua ezartzen denaren arabera, tokiko administrazioek ahalmena dute zergak ezartzeko.

Egun indarrean dauden zerga ordenantza sistema berrikusteko beharra dago, baina gaur egun jasaten ari garen egoera ekonomikoa ere ezin da ahaztu. Udala zerga ordenantzak eta hainbat prezio publiko berrikustera behartua dago, besteak beste, herrian hainbat zerbitzu eskaintzen dituztenek suposatzen duten kostua etengabean igo egin delako eta zerbitzuen kalitatea bermatu nahi delako.

Ondoren zerrendatutako aldaketak proposatzen dira, aipatzen ez diren gainontzeko zergei egun duten tratamendu bera ematen jarraituko zaielarik:

- Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga, berdin jarraituko dute, hots, 2009 ekitaldiko kopuru berberak.
- Edateko uraren hornikuntza: 3 hilabeteroko kuota:

Etxekoa	13 €
Taberna, albergea...	20 €
Industria	25 €

Kobranta 6 hilabetetik behin egingo da.

- Zabor biltzea zerbitzua: 3 hilabeteroko kuota:

Etxebizitzak eta baserriak	13 €
Taberna, albergea...	20 €
Industria	25 €

Kobranta 6 hilabetetik behin egingo da.

- Hilobi eta ehorzketa zerbitzua:

Hilobiak 12 urtez	150 €
Hezurtegia	115 €
Lur ematea	90 €

- Wi-fi zerbitzua: Gaur egun dagoen bezala utziko da, zerbitzua bermatuko duen beste ornitzaile egokiago bat aurkitu arte gutxienik.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Hau guztia Gipuzkoako Herri Ogasunak erregulatzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan araututakoa betez, aldaketaren berri iragarriko da, guztiek honen berri izan dezaten eta, 30 lanegunetako epean, egoki iruditzen zaien kexa eta erreklamazioak egin ahal izateko. Esandako epea kexa edo oharrik gabe amaitu ondoren, hartutako erabakia behin betikoa izango da, akordio berrien beharrik gabe.

Udalbatzak aho batez erabaki du 2009 urterako zerga ordenantzen aldaketa egitea eta dagokion iragarpena egitea hurrengo 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean izan daitezen.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du Aipatutako Foru Arauaren 18.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, tasa, kuota, tarifa eta ordenantzen finkapen eta aldaketa onesten duten erabakien aurka, Euskal Herriko Justizia Auzitegi Gorenean, dagokion Salaren aurrean, administrazioarekiko auzitarako errekurtoa tartekatu ahal izango dute interesatuek bi hilabeteko epearen barruan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita.

LAUGARRENGO GAIA
IBERDROLAK, BEIZAMAKO R-21, L-2 ETA V-2 GUNEEN AZPIEGITURA
ELEKTRIKOAGATIK AURKEZTUTAKO FAKTURAREN ORDAINKETA
EGITEA.

Ikusirik, IBERDROLA DISTRIBUCIÓN ELÉCTRICA S.A.U.-k, 13.459,56.-€ko (BEZ barne) faktura aurkeztu duela Udal honetan, Beizamako R-21, L-2 eta V-2 deritzon gunearen azpiegitura elektrikoa egiteagatik.

Ikusirik, 22/2007 alkatetza ebazpenak IBERDROLA DISTRIBUCIÓN ELÉCTRICA S.A.U.-k, Beizamako R-21, L-2 eta V-2 deritzon gunearen azpiegitura elektrikoaren baldintza tekniko ekonomikoak onartu zituela.

Kontuan hartuz, beste batzuen artean, elektra azpiegitura egitearen atalean adierazten diren sareko luzapen lanak egiteagatik 13.459,56.-€ (BEZ barne) ordaintzea adostu zela.

Kontuan hartuz, besteak beste, apirilaren 2ko 7/1985 Legea Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak 22 artikuluan ezarritakoa, eta urriaren 30eko 30/2007 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bigarren xedapen gehigarrian arautua, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- Dagokionean, IBERDROLA DISTRIBUCIÓN ELÉCTRICA S.A.U.-k, aurkeztutako 13.459,56.-€ko (BEZ barne) fakturaren ordainketa agintzea.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Bigarrena.- Ordaintzen den kopuruaren itzulketa eskatzea aipatutako guneko etxebizitza berrietako jabekidegoari.

Erabaki hau izapidezko egintza soila besterik ez da eta beraren aurka ezin da inongo errekurtsorik jarri.

BOSGARRENGO GAIA
EREIN 2008 DIRULAGUNTZA PROGRAMAREN EBAZPENAREN AURKARKO
ERREKURTSOA JARTZEA.

Ikusirik, 2009ko irailaren 24ko EHAAn argitaratu zela Ebazpena, 2009ko uztailaren 9koa, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendariarena, urriaren 7ko 171/2008 Dekretuaren babesean 2008ko ekitaldian emandako diru-laguntzen onuradunen zerrenda argitara ematekoa.

Ikusirik, aipatutako ebazpen horretan jasotzen denez, Beizamako Udalari 188.429,54.-€ko dirulaguntza esleitu zaiola.

Kontuan hartuz, espedienteaz aztertu ondoren, badirudiela, akats aritmetiko baten erruz aurkeztutako proiektuaren inbertsioa 385.499,31.-€ dela kontuan hartu ordez, 285.499,31.-€koa dela kontuan hartua izan dela.

Ikusirik, kontzeptu ezberdinen baturak (BEZ aurretik) akats bat izan duela, eta 285.499,31.-€ jartzen duela 385.499,31.-€ren ordez; eta argi gelditzen dela akats aritmetiko bat besterik ez dela, zeren kontzeptu guztien batura 385.499,31€koa dela, BEZa azken kopuru honetan oinarrituz kalkulatu izan dela eta kopurua hizkiz jasotzen den guztietan inbertsioaren kopurua berau dela.

Honenbestez, honako datuen ordez:

Espediente zbkia	Izena	IFK	Inbertsioa	Dirulaguntza
322GI20080115	Beizamako Udala	P2002200J	285.499,31.-€	188.429,54.-€

Honakoak beharko lukete:

Espediente zbkia	Izena	IFK	Inbertsioa	Dirulaguntza
322GI20080115	Beizamako Udala	P2002200J	385.499,31.-€	254.429,54.-€

Aurreko guztia kontuan hartuz eta, besteak beste, besteak beste, apirilaren 2ko 7/1985 Legea Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak 21 eta 22 artikuluetan ezarritakoa, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen dute:



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Bakarra.- Gorako errekurtsioa jartzea Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, Ebazpena, 2009ko uztailaren 9koa, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendariarena, urriaren 7ko 171/2008 Dekretuaren babesean 2008ko ekitaldian emandako diru-laguntzen onuradunen zerrenda argitara ematekoaren aurkatuz.

Erabaki hau izapidezko egintza soila besterik ez da eta beraren aurka ezin da inongo errekurtsorik jarri.

SEIGARRENGO GAIA
URAREN ARAZOEI BURUZKO MOZIOA.

2009ko irailaren 18an , Beizamako Ilaralde auzoko hainbat bizilagunek, idatzi bat aurkeztu zuten udalaren aurrean, azkeneko hilabete hauetan ur-hornikuntzako sarean izan dituzten arazkoak azalduz, eta udalaren erantzuna eskatuz.

Honen aurrean, Beizamako udala osatzen dugun zinegotziok, honako hau azaldu behar dugu:

- 1.- Udala eratu denetik, uraren hornikuntza, herriko arazo nagusienetakoa dela jakitun garena. Arrazoi honengatik legealdi honen hasieran azterketa orokor bat egitea eskatu zitzaion ASMATU injeniaritza enpresari, eta hori amaitu bezain laster, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean aurkeztu zela, Landagipuzkoa 32 egitasmoaren barruan aurreikusirik zeuden aktuazioentzako dirulaguntza eskatuz.
- 2.- Horren ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu du dirulaguntza bat ematea egitasmoaren 1. Faseko lanetarako. Fase honetan, Ilaralde auzoan ur-hornidura bermatzeko lanak aurreikusita daude, egin diren konponketez gain.
- 3.- Hain zuzen, herritik Ilaraldera doan ur-horniduraren sarearen egoera tamalgarria dela eta, uda honetan arazo ugari sortu dira eremu honetan, baita aipaturiko auzoan ere. Arazoak sortu diren bezain laster, erantzun azkar bat ematen saiatu gara, eta bertan izan gara.
- 4.- Arazo honen aurrean, udalaren ahalegin ekonomikoa oso garrantzitsua izan da. Hain zuzen, 2009ko ekitaldian, 40.000 € gastatu ditu udalak ur-hornidura sareak berritzen eta konpontzen. Idei bat emanez, udalak Diputaziotik jasotzen duen urteko kopurua gastu orokorretako 200.000 €-koa da, gutxi gora-behera.
- 5.- Udalak gogora arazi behar die idazkia luzatu duten bizilagunei, herriko ur-sarea osatzen duten elementu eta instalazioak, herri-jabariak direla, eta partikularrak ez



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

daudela baimenduta, beraiek erabiltzeko edo bertan eskua sartzeko. Hain zuzen, idazkian aipatzen den moduan, denonak diren elementuak norberaren irizpidearen arabera erabiltzeagatik, kalteak handitu dira, adibidez, suhiltzaileentzako urhartzeak.

6.- Azkenik, arazo honen aurrean denon laguntza beharrezkoa dela eta eskertzen dela azpimarratu nahi dugu, baina beti ere herritar guztien ondasunak errespetatuz eta araudiak kontutan hartuz.

Erabaki hau izapidezko egintza soila besterik ez da eta beraren aurka ezin da inongo errekurtsorik jarri.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, 20:00etan eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.